BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1163

AGINDUA, 2014ko otsailaren 17koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Vitoria-Gasteizko (Araba) «Judizmendi-Canciller Ayala-Santa Lucía» Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxearen izen espezifikoa aldatzea onartzeko dena.

Vitoria-Gasteizko (Araba) «Judizmendi-Canciller Ayala-Santa Lucía» Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxearen izen espezifikoa aldatzeko aurkeztutako proposamena aztertu da.

Espediente horren izapideak araudiak ezarritako prozedura jarraituz egin dira; gainera, indarrean dauden arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta, bestalde, arlo horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena eman dute.

Gai horretan aplikatu beharreko araudia ikusi ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– CEIP «Judizmendi-Canciller Ayala-Santa Lucía» HLHI ikastetxearen izen espezifikoa aldatzea onartzea: aurrerantzean, CEIP «Judizmendi» HLHI izango du izena. Ikastetxe hori Vitoria-Gasteizko udalerriko (Araba) Judimendi hiribideko 15ean dago eta 01002909 kode-zenbakia dauka.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 17a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.